

Lin Shu, Kixoteren egilea¹

MIKAËL GÓMEZ GUTHART

«Txina adierazle erakusgarri bakan horietako bat da, ondoriorik gabe landu ezin daitekeena: oso gutxik azter dezakete norberaren mamuak erakutsi gabe; alde horretatik, Txinaz mintzo dena bere buruaz ari da».

SIMON LEYS

Ezezagun izango duzue, noski, Lin Shu izena. Halere, aspalditik, literaturaren historiako eskuliburu guztietan agertu behar-ko zuen. Jakintsu autodidakta handi hau Fujian eskualdean sortu zen, Txinako hego-ekialdean, Qing dinastiaren garaian, Txinatar Inperioaren azken hondarrean. Margolaria, kaligrafoa, eleberri-egilea, narratzailea, poeta, saiakera-idazlea eta itzultzailea. Egin ere, Txinako lehenbiziko literatura-itzulpenak egin zituen XIX. mendean amaieran, halako testuak, nolabait esateko, ments baitziren hango liburutegietan: gizaldi eta gizaldiren buruko, antzinako testu txinatarren iruzkinak osatzen zuten txinatar tradizioa, eta ez inportazioek. Lin Shuren ekarriak, bada, berealdiko garrantzia izan zuen idazle eta liburu guttiz exotikoak zabaltzeko txinatar irakurleen artean; batik bat, aurrenik, Ingalaterrakoak eta, ondoren,

Frantziakoak, Estatu Batuetakoak, Suediakoak eta Alemaniakoak. Berak, ordea, ez zuen ulertzen atzerriko hizkuntzarik; ez ahozkorik, ez idatzizkorik. Lehenik, laguntzaile-itzultzaile bati irakurrarazten zizkion testuak goraki, ustez eta, teoriarik bederen, jatorrizkoaren hizkuntza ulertzen zuela eta gero ahozko mandarinerara behar bezala interpretatzea; beraren exegeta finenek —bakanak dira, egia— diotenez, Lin Shuk mandarin klasiko berridazten zuen dena, ahalaz jatorrizko partiturari hertsiki lotuz. Alegia, narrazioaren argumentua lehenetsiz doinuaren, erritmoaren edo estiloaren gainetik. Lin Shu, bere buruari horretarako baimena emanaz, dohain miragarri horren jabe izan zen: besteren begien bitartez zeinahi hizkuntza irakurtzeko gai izatea.

Hemeretzi laguntzailez baliaturik, Mendebaldeko literaturako ia berrehun lan

1. Iñigo Roque Eguzkitzak frantsesetik itzulia.

klasiko itzuli, edo, zehazkiago, berridatzi zituen; besteak beste, Balzac, Shakespeare, Dumas aita-semeak, Tolstoi, Dickens, Goethe, Stevenson, Ibsen, Montesquieu, Hugo, Txekhov eta Loti. XX. mendearen hasieran, bertsiio horietako batzuk Txinan gehien saldutako liburuen artean egon ziren, hala nola *Kameliadun dama*, ordukoan *Kameliadun paristar damaren oinordekotza* izenez agertua. Are liluragarriago eta misteriotsuagoak dira beraren argitaratu gabeko berrogeita hamar itzulpen inguru, oraindik inork ezin izan baitu zulatu nork edo zer hizkuntzatan idatziak diren. Eskuizkribu galdu horien artetik badira guretzat erabat ezezagun diren lan gorenak.

Liburuek, maiz, estratak eta beste *zidor adarkatu* batzuk hartzen dituzte, mugak gainditzeko eta espero gabeko lekuetara iristeko. Literaturaren historian, baita idazkuntzarenean ere, ez dira eskas halako kasuak. Isaac Bashevis Singer gazteak —Knut Hamsun, Romain Rolland edo Gabriele d'Annunzio yiddishera itzuli arren—, ez zekien, nonbait, norvegiaraz, frantsesez edo italieraz, ezta batere; Polonian gerra aurrean zabaldu ziren alemanezko itzulpenez baliatu zen. Witold Gombrowicz-ena ere adibide ezaguna da; bere *Ferdydurke* berridatzi egin zuen gaztelaniaz, Virgilio Piñera-ren eta Humberto Rodríguez Tomeu-ren laguntzaz, biak ere kubatar idazleak polonieraz zipitzik ere ez zekitenak, eta, gero, berak frantsesera berritzuli zuen bertsiio hori, Buenos Airesko Alliance Française-ko irakasle baten laguntzaz (*Ferdydurke*ren lehenbiziko edizio frantsesa izango zen, Maurice Nadeau-k argitaratua 1958an).

1921ean, Lin Shuk *Kixoteri* heltzea erabaki zuen, 1885ean plazaratutako ingelesezko itzulpen batetik abiatu. Haren laguntzaile Chen Jialin, nonbait, irakurraldia egiteko gauza zen, ordurako ederki landutako teknikari jarraikiz, unibertsitateko ikasketen zati bat Ingalaterran egina baitzuen. Hala eta guztiz ere, bertsiio partzial bat eskaini zuen, elkarrizketa asmatu ugari erantsiz eta, halaber, kapitulu asko anputatuz, baita hitzaurre ezaguna ere: guztira 285 orrialde, Miguel de Cervantesen maisulanaren lehenbiziko parteak; hemen, gogora ekarri beharrean gaude Jorge Luis Borges harako *Pierre Ménard* haren eginbehar sekretua, *Kixoter*en lehenbiziko parte berridatzea baitzuen amets.

Zaldun eroaren biografia hori (edo *Zaldun sorginduen historia*, berritzulpena zein den) Shanghain argitaratu zen, 1922an. Txinatar liburugintzaren hiri nagusia zen —Sortaldeko Paris esaten zitzaion horregatik—, eta han zeuden argialetxeak, inprimategiak, literatura-kafeak. Lin Shu handik bi urtera hilko zen, eritasun batek higiturik, eta *Kixote* «erdi» hori burututakoan erretiratu zen.

Oroitaraztekoa da orobat *On Kixote Mantxakoak* zaldun-eleberrien zale zen agurre eri baten ibilerak kontatzen dituela eta arabierazko testu baten itzulpen gisa aurkeztu zela kontakizuna, zeinaren originala historialari musulman bati egotzi baitzion Cervantesek, begi onez. Itzultzaile faltsuaren baliabidea ohiko trikimailua izan da zaldun-literaturan XIV. mendean geroztik. Hala, idazleek sinetsarazi nahi izaten zuten haien idazkiak beste hizkuntza batzuetatik egindako itzulpenak zirela: toskanera, tarta-

riera, florentziera, grekoa, hungariera, baita hizkuntza ezezagunak ere. Literatura modernoa itxurazko itzulpen batek hasi zuen, bada, 1605ean, pertsonaia nagusia eleberrirakurle bat zela. Kiribil guztiz kiribildua.

Itzulpena, berridaztea den aldetik, fidela izatekotan, ezin da jatorrizko obraren ba-

liokide petoa izan. José Ortega y Gassetek ohartarazi zigun ezen onenean ere *harako bidea* dela. Lin Shu irudikorren eta haren laguntzaile prestu Chen Jialinen abenturek filosofoaren iritzia ezeztatu ez, berretsi egiten dute, miragarriki.

Paris, 2017

Resumen

El escritor chino Lin Shu tradujo numerosas obras literarias al mandarín clásico, a finales del siglo XIX, aplicando para ello un particular método de traducción: se servía de colaboradores que le traducían directamente los textos, a viva voz, a un chino llano, «lecturas» que luego reinterpretaba y elaboraba en mandarín clásico.

Résumé

L'écrivain chinois Lin Shu traduisit à la fin du XIX^e siècle nombre d'œuvres littéraires en mandarin classique. Il utilisa pour cela une méthode de traduction très particulière : il faisait traduire à ses collaborateurs, directement et oralement, le texte en chinois courant, puis il réinterprétait et transcrivait en mandarin classique ces « lectures ».

Abstract

Chinese writer Lin Shu translated numerous literary works into Classical Mandarin Chinese in the late 19th century, applying for that purpose a peculiar method of translation: he had assistants translate texts for him directly and orally into simple Chinese, and he then reinterpreted these “readings” and put them into Classical Mandarin.